



**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2021EKO URTARRILAREN 13AN EGINDAKO BILERAREN AKTA**

Kontseiluburuak deituta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, 2021eko urtarrilaren 13ko 09:30ean, eta honako hauek izan dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

DEITUTAKOAK

BURUA

Miren Gotzone Sagardui Goikoetxea and.

KIDEAK

Iñaki Berraondo Zabalegui jn.
Nerea Urien Azpitarte and.
Hernando Lacalle Edeso jn.
Josu Iñaki Garay Ibañez de Elejalde jn.

IDAZKARIA

Ibon Etxeberria Olañeta jn.

Era berean, kontseiluaren bilerara deitu da, buruak gonbidatuta, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusia, María Rosa Pérez Esquerdo andrea.

GAI-ZERRENDA

LEHENA.- Akordioa, Osasuneko Mahai Sektorialean 2020ko abenduaren 10ean adostutako neurria onartzen duena, lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileentzat berariazko osagarri bat sartzeko.

2020ko abenduaren 10ean, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuak proposamena aurkeztu zuen, Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatutako lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileentzat berariazko osagarri bat sartzeko; honako hau, hain zuzen: kategoriari esleitutako ordainsariaren % 4, Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren I. eranskinaren arabera. Bilera horretan, Osasuneko Mahai Sektorialean ordezkariak duten ELA, SATSE, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek adierazi zuten ados zeudela aurkeztutako proposamenak zekarren neurriarekin.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen (ekainaren 26ko 8/1997 Legea) antolamendu-oinarrietako bat da, zehazki, osasun-arlo bakoitzean lehen mailako arretaren antolamendu egokia bermatzea, ospitale-arretarekin koordinatuta, ahalik eta eraginkortasun sanitario handienaren bidez, bai baliabideen kokapenari eta erabilerari dagokienez, bai sinergiak aprobetxatzeko edo erreferentziazko gailuak konfiguratzeko baldintza estrategiko egokienak ezartzeari dagokionez.

Premisa horiekin bat etorriz, Osakidetzak aurrera egin du arreta integratuko eredu bat eratzeko bidean. Eredu hori Osakidetzaren erakunde sanitario integratuak eratuta hedatu da, eta, azkenean, uztailaren 3ko 100/2018 Dekretua (Osakidetza - Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzkoa) argitaratu da.

Antolamendu-konfigurazio berri horrek zehaztu du, hain zuzen ere, lehen bereizita zeuden laguntza-mailetatik (Lehen Mailako Arreta eta Ospitaleko Arreta) datozen profesionalak gaur egun eremu funtzional berean biltzen direla, zereginak eta funtzioak partekatuz, baita espazio fisikoa ere, eta hori bereziki nabarmena da administrazio-arloetan. Gai horiek, bada, aztergai izan dira, eta planteamendu propio eta espezifiko bat eman zaie LEHEN MAILAKO ARRETAREN ESTRATEGIA berrian, laguntza-maila guztietan administrazio-arloetako alderdi bateragarriei heltzeko asmoz.

Horren guztiaren ondorioz, lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileen lanpostuetarako berariazko osagarri bat onartzeko proposamena egin da, Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 103. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Osagarri hori bere kategoriari esleitutako ordainsariaren % 4koa izango da, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren I. eranskinaren arabera.

Abenduaren 27ko 13/2019 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak) 21.1. artikuluan eskatutako aurretzako izapideak egin dira, eta aldeko txostenak egin dituzte Ekonomia eta Ogasun Sailak (Kontrol Ekonomikoko Bulegoa) eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak (Lan Harremanen Zuzendaritza).

Azaldutakoaren arabera eta Kontseilu honi aurkeztutako dokumentuak aztertuta, Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legean (Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena) eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren (Osakidetza Ente Publikoaren estatutuak ezartzen dituena) 8.5.f) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2021eko urtarrilaren 13an egindako bileran, akordio hau hartu du:

AKORDIOA

Lehena.- Onartzea Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko eta ELA, SATSE, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuetakako ordezkariak 2020ko abenduaren 10ean Osasuneko Mahai Sektorialean adostutako neurria, lehen mailako arretako administrazio-arloetako langileentzat berariazko osagarri bat sartzeko; honako hau, hain zuzen: kategoriari esleitutako ordainsariaren % 4, Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren I. eranskinaren arabera, Mahai Sektorial horretan aurkeztutako proposamenari jarraikiz.


Bigarrena.- Osasuneko sailburuak Gobernu Kontseiluari izapidetuko dio espedientea, onar dezan, abenduaren 27ko 13/2019 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak) 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

SEIGARRENA.- Eskariak eta galderak

Eta, jorratu beharreko beste gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da, 2021eko urtarrilaren 13ko 10:00ak direnean.



**Sin.: IBON ETXEBERRIA OLAÑETA
IDAZKARIA**



**Sin.: MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETEXEA
BURUA**